

noaia

Mikel Pagadi:
**“Aginaga potentzia
bat da”**

**Abenduaren 27an,
pentsiodunen
elkarretaratzea**

**Usurbil FT, 2018-
2019 denboraldiko
erronkei heltzeko
prest**



**Orbeldi Dantza Taldea,
plazatik pantaila handira**

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
noaua.eus web orrian



Alokairua, salmenta, etxebizitzak, garajeak,
motorra, lanpostuak, trukeak...

ZURE OHARRA BIDALI,
EDO BILA ZABILTZAN HORI
ERRAZ AURKITU!

Merkatu txikia

www.noaua.eus



noaua



Turquía



943 373 613

BIDAIAK
TALDEAN

IRTEERA EKAINEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

Gabonetako berezitasunak

FRESKOAK:

BEHI ETA TXAHAL AZPIZUNA,
KAPOIA, PULARDA, ARKUMEA, ANTUXUME,
TXERRIKUMEA ETA ABAR...



FAMILI ETA LAGUN TALDE MENUAK:

ARRAI ZOPA, PIPER BETEAK, TXIPIROIAK,
TXERRIKUME ERREA, ANTUXUME ERREA...



OSATU ZURE
MENUA
ZURE GUSTORA!
(urte osoan)


ERREAK: ARKUMEA, ANTUXUME, TXERRIKUMEA...



Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

HARATEGIA - URDAITEGIA- FRUTADENDA Zubiaurrenea, 2 • 943 36 55 81 • 20170 Usurbil



Albisteak iruditan

2019ari ongi etorria Andatza gainean

Uurbilen ere bada urte berriari mendian ongi etorria emateko ohitura. 2018a agurtu eta 2019ari harrera egiteko Andatza gainean hitzartu gaitu berriz, herritar talde batek. Ohar honen bidez zabaldu dute gonbidapena:

“Txanpan pixka bat izango dugu”

“Beste urte berria gainean dugula eta, urtarilaren 1ean, azkeneko urteetan bezala, Andatza mendian goizeko 10:00etan elkartzeko gonbita luzatzen dugu. Txanpan pixka bat edango dugu”. Ondoko irudian, urte hasieran Andatzara igo zirenek atera zuten talde argazkia.



Andatza mendian goizeko 10:00etan elkartzeko gonbita luzatu dute.

Laburrean

Lan eskaintza Udarregi ikastolan

Udarregi Ikastola klase partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat helbide honetara: gorputzaldiak@udarregi.eus

Hurrengo aldizkaria, urtarilaren 11n

Hauxe duzue urteko azken NOAUA!. Hurrena urtarilaren 11n plazaratuko dugu. Ordurako zorion agur edo oharrik baldin baduzue, urtarilaren 7a baino lehen helarazi: erredakzioa@noaua.eus / 943360321.

Gripearen aurkako txertoa

Gogoan izan, abenduaren 31ra arte luzatu du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak gripearen aurka txertoa hartzeko kanpaina. Txertatu aurretik, hitzordua eskatu anbulatorioan bertan edo osasun etxera deituta: 943 361 543.

noaua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeka.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Aritz Gorriti

Datorrena...

A tzo eta bihar artean gara. Balantze eta erronken artean. Hausnarketa eta aurreikuspenen artean. Hilabeteotakoa borobildu nahi eta datorrena marrazten hasteko garaia dugu. Urte bukaera mundu bukaeraren pare jartzen diren egunetan gara. Dena bukatu edo itxi behar, ate berriak irekitzeko. Zaharkitu zaigun urtea agurtu ezinean, berria eskuzabalik hartu behar.

2018a azkenetan dugun honetan, datorrenean ere ez zaigu hizpiderik faltako, ziur egon! Hauteskunde urtea izango dugu! Baten faltan, gutxienez hiru deialdi maiztaren 26an; europar, udal eta foru hauteskundeak. Bozkak bildu eta zenbatzen, ez dute lan makala izango hauteslekuetan lan egitea egokitu zaien lagunei!

Atzerapenik ez bada, aurrekaririk ez duen panorama egon gaitezke 2019an.

Gipuzkoako Foru Aldundia- ren aurreikuspenak betetzen badira, hauteskundeak igaro berritan amaituko dituzte jada gure artetik begi bistakoak diren erraustegiko lanak. Eta udazken parterako Zubieta gainari kea dariola ikusteko prestatzen hasi beharko dugu?

Ordura arte izango da ziur mugimendurik. Besteak beste, oraintxe, urte amaiera honetan GuraSOS egitekoa dena. Gipuzkoarrek landu eta adostutako hiri hondakinen kudeaketa plan alternatiboa aurkeztuko dute. 2019an Foru Aldundiari helaraziko diote. Erraustegia alboratuko duen planak, hiri hondakinekin Gipuzkoan dugun gatazka adostasunez eta elkarlanean konpontzeko bide-orria izan nahi du.

Bide-orria plazaratuta, eta datorkigunaren aurrean, mobilizatzeko hitzordurik ez da faltako ziur, ez erraustegiaren aurka ezta pentsio duinen alde ere. Urriaz geroztik frontoi a-

tzean biltzeko deitzen ari zaizkigu herriko jubilatutako elkar-teak. Azken ostegunak pentsio duinen aldarria plazaratzen segitzeko egunak izango ditugu 2019an ere.

Egunak aipatuta, Euskaraldiko 11 egunak igaro bai baina amaitu ez den ariketa horrek izandako eraginaren gaineko emaitzak ezagutuko ditugu 2019an. Bai Euskal Herrikoak baina baita udalerri honetakoak ere. Usurbilgo Udala- ren enkarguz, Soziolinguistika Klusterrak herri mailako ikerketa ere egingo baitu. Horretarako ordean Euskaraldian izena emana dugun guztion laguntza ezinbestekoa izango da. Bete dezagun egunotan emailaz jaso dugun galdetegia. Erantzun dezagun baita, martxoan jasoko dugun hiru- garren eta azken galdera sorta. 5-10 minutuko tartea baino ez digu eskatuko eta ezinbestekoa izango da, Euskaraldiak gure inguruan izan duen benetako eragina ezagutu nahi

badugu behintzat.

Euskaraz bizitzeko aldarria presente asko izango dugu 2019an. Beste 11 egunez, izerdi patsetan amaitzeraino; hasi entrenatzen, badator eta 21. Korrika! Apirilaren 4tik 14ra ospatuko da. Tarte horretan igaroko da Zubieta, Usurbil eta Aginagatik.

Lasai hartu beharko dugu honenbestez ate joka dugun urte berria. Urtarrileko aldapa leuntzen joateko, hurrengo ospakizunetan pentsatzen jarri nahi duenak agenda zabala du; ekainaren 9an Aginagan ospatuko den Gipuzkoako Eskola Txikien festa, Sagardo Eguna maiztaren 19an, Dantza Eguna apirilaren 13an... Edo lehenago, hasi prestatzen, martxoaren 2ko Inauteri Festa. Egun batez bada ere, eguneroko kezka eta erantzukizunak uxatzeko, moztarotatu, eta oraingoan, kaleak jolas- tokian bihurtuko ditugu!

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatzia gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urtarrilak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: Urtarrilak 07.

Trukea eta berrerabilera, etxean ahaztuak ditugun jostailuen bizitza berria

Aspaldi erosi eta erabili gabe, etxeko logela edo ganbaretan zenbat joko eta jostailu egongo ote dira. Mordoxka bat ziur. Norberak erabiltzen ez dituenak beste batek gustura har ditzakeelako eta esku aldaketa eginda, jostailuek bizi berria izan dezatekelako antolatzen du urte garai honetan jostailu erabilien truke azoka, Udarregi Ikastolako Hitz Aho guraso elkarteak.



Jostailuek bizi berria izan dezaketelako antolatzen du urte garai honetan truke azoka Udarregi Ikastolako Hitz Aho guraso elkarteak.

Joko eta jolas mordoxka bat jarri zuten ikusgai frontoian abenduaren 15ean. Bezperan Sutegin biltzen aritu zirenak. Azokarako materiala utzi duenak, egun horretan zuen utzitakoaren truke

doan ikusgai ziren jostailuak eskuratzeko aukera.

Erosi, kontsumitu eta bota eskema hautsi, eta erabilitakoa berrerabili, trukatzeara sustatzen duen ekimena dugu Hitz Aho-

rena. Azoka amaieran bertan geratu ziren jostailuak, errefuxiatuentzako laguntza biltzen aritzen den "Ez itxi begick" Trintxerpeko Elkarteak jasoko ditu.

235etik 222ra murriztu da langabetu kopurua

Urriaren 228tik 235era igo ostean, azaroan berriz ere behera egin du Usurbilgo langabetu kopurua. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko azken datuen arabera, 222 langabetu zituen udalerrri honek joan den hilabetean. 121 emakumezko, 101 gizonezko. 222tik 121 langabetuk 45 urte baino gehiago dituzte.

Kontratazio datuei dagokienez, 413 lan kontratu erregistratu ziren Usurbilen azaroan. Gehienak, 372, aldi baterako. Emakumezko langabetuak gehiago izan arren, 176 emakume kontratatuta dira azaroan, eta 237 gizonezko.

Ika-mika

Felix Sarasola, gure "Felito"

Felix Sarasola, gure Felito joan zaigu! Eta negarrez gaude pailazoak ere... Sudurgorrior laguna, azeituna, babarruna...bihotz handia, eskuzabala, goxoa, sentibera eta irrizalea beti zena joan zaigu.

Maitatua Usurbilen eta maitatua Lasarte Orian, gure herriari! Oso gazte ginela ezagutu genuen, sudurra gorritu gabe genuela oraindik.. Gu saltsa guztietan murgilduta genbiltzala, jakin genuen Olentzero itxurako sukaldari bat iritsi zela herrira. Txartel txokon haseran, Txitxardin Beltza zabal-

du zuen gero.... Euskara, kultura, presoak,... gaia edozein izanda ere errifak ateratzeko saria seguru genuen Felixean; "trankilito... lau afari jarri, eta zatotze berriz behar duzuenean...".

Berehala deskubritu genuen bere arrakastaren sekretua; Felitoren jatetxean sartuz gero, sabelaz gain, bihotza beteta ateratzen zen edozein! Gure adiskidetasuna betirako izango zela konturatu ginen ezagutu orduko. "Trankilito...", unean unekoa gozatzen zekien Felixek beti, eta berea zuen

errezeta hori ikasi genion pailazook. "Aspalditik gatoz, eta urrutira goaz...!". Gelditu gabe, topera, baina astiro bizitzearen errezeta da hori, egun eta une bakoitzari bere zorion zukua ateratzen diona; goizero ohetik altxa eta ahoan irribarre bat margotuta, jarrera eraikitzailea, baikorra eta errespetuzalea maite duenarena.

Zalaparta handirik atera gabe, mundu berri bat koloreztatzen zuen Felixek. Eta orain... malkotan gaude zure lagunak Euskal Herrian eta malkotan izango dira Kuban.

Han ere, iritsi orduko, euskaldun zein kubatarren artean erein baitzenuen zure maitasuna. Enbaxadore handi bat galdu du Euskal Herriak. Habanan Aberri Egunak ez dira aurrerantzean berdinak izango zu gabe Felix, baina gure bihotzean, buruan eta eskuetan izango zaitugu beti. Sentitu, pentsatu, ekin... beti elkarrekin!

Aupa Felix, gure Felito... trankilito!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldea.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zorionak eta Urte Berri on!
Gure Elkarte
 ~ Santuenea ~

Eguneko menua 10€ - Eramateko aukera! Eskatera egiteko: 686 55 41 45
 Santuenea 11, Usurbil - @GureElkarteaSantuenea

Mikel Pagadi: “Aginaga potentzia bat da”

Iaz “Oreina” eta orain Euskal Telebistako “Herri Txiki, Infernu Handi” saioarekin, grabazio platoon bilakatu da berriz Aginaga asteotan. Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxagak aurkezturiko saioa Aginagakoen hitz eta irudiak biltzen aritu da asteotan. Pagadi ondorio argi batera heldu da, NOAUA!ri eskaini dion elkarrizketa honetan nabarmendu duenez; “Aginaga potentzia bat da”.

NOAUA! Zerk eraman zaituzte Aginagara? “Oreina” filmagatik ote den entzun dugu.

Mikel Pagadi: Normalean nortasuna duten herriak, auzoak eta udalerriak bilatzen aritzen gara. Aginaga ondoan izanda, batzuetan ondoan dituzunak ikusi arren ahaztu egiten dituzu. Aginaga ordea entitate garrantzitsua da. Bertan ere egon behar genuen. Data kontuengatik zerrenda bat izaten dugu egin eta Aginaga tokatu zenean, Aginagara. Aginagan ere pertsona interesgarriak eta istorio handiak egongo zirela pentsatzen genuen eta asmatu dugu!

Herri Txiki herrietara joaten denez, Aginaga nolatan hautatu duen baten baino gehiagoren ahotan egon da asteotan. Herritartasunaren gaiak bizi-rik dirau.

Gai hori tratatuko dugu saioa, ederki kontatzen dute aginagarrek, auzoa, udalerria edo herria ote den. Baina ni ondorio batera heldu naiz; Aginaga potentzia bat da. Harrituta geratu gara metro karratu gutxian, gauza asko daude. Badu nortasuna eta gauza piloa, harritgarria.

“Oreina” grabatu zuten tokietan egon zarete, besteak beste?

Koldo Almandoz (“Oreina” filmeko zuzendaria) laguna dut



“Aginagan ere pertsona interesgarriak eta istorio handiak egongo zirela pentsatzen genuen eta asmatu dugu!”, Mikel Pagadi ETBko aurkezleak aitortu digunez.

MIKEL PAGADI

“Aginagan jendea den bezala agertu da, oso benetakoa.

Hemen aktorerik ez dago. Asko poztu nau horrek”

eta filmeko grabazio lekuetan egon ginela esan nion. Pentsa Aginagak azken aldian zenbaterako eman duen; filma, programa, eta gauza gehiago.

Urte borobila bizitzen ari dira Aginagan?

Bai “kapital kulturala” dugu.

Aginagak ze berezitasun ditu?

Oso giro ona dagoela iruditu zait. Batzuetan esaten da herri txiki infernu handi, baina orokorrean ez zait iruditu jendea antzeztan zebilenik. Ez zait askotan pasa, baina batzuetan izaten da, telebistakoak datozela eta herria apaindu beharra. Hemen jendea den bezala agertu da, oso

benetakoa. Hemen aktorerik ez dago. Asko poztu nau horrek. Oso programa borobila geratu da, denetarik pixka bat dugu.

Aginagako saioa noiz emitituko ote den.

Urtarrila amaiera aldera. Baina lasai, garaiz abisatuko dizuegu, sare sozialetan zabalduko dugu.

“Bideo harrigarriak”

Zergatik ez dugu galdu behar saio hau?

Bideo harrigarriak daude, bai nireak, Zuhaitzenak... Denetarik dago. Aginagak zenbaterako ematen duen ikusiko duzue. Ordubeterako asko eman digu, beste bi orduetarako ere eman digu.

Zer oroitzapen daramazue Aginagatik?

Ojo al krixto e! Benito Aranbururekin ur hotzarekin biluzik duxatu ginen. Anguletan ibili ginen Inaxiorekin. Maria Angelesek matrikula guztiak buruz dakizki. Bizitzan sekula ez zait ahaztuko.

Urtarrila amaieran eskainiko dute ETB1en

Ikusmina sortu dute “Herri Txiki Infernu Handi” saioak Aginagan eginiko grabazioek. Azaroa amaieran, hainbat bizilagunen hitz eta irudiak abenduaren 14an erakutsi zituzten Elizan egin zuten saioan. Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleen bakarrikzeta saioez eta Sebastian Lizasok Aginagari jarritako bertsoez gozatu ahal izan zuten.

100 atal bete ditu saioak

100 atal bete berri dituen saioak eginiko grabaketa lanok, aldaketarik ez bada, hilabete barru ikusi ahal izango ditugu. Urtarrileko bigarren hamabostaldian. Egun zehatzaren berri garaiz iragarriko du saioko lan taldeak. Gogoan izan, igande gauero eskaintzen du Euskal Telebistak “Herri Txiki” gaueko 22:00etan hasita.

“Umorea egiten dugu baina ez gara jendearekin sartzen”

NOAUA! ETB-n ordubetez ikusi ahal dugun saioak ordu askotako atzeko lana du. Aginaga kasu, herri bat hautatzeko, non abiatzen da zuen lan prozesua?

Mikel Pagadi: Normalean herri bat aukeratzeko da, zenbat biztanle dituen ikusten da. Normalean jende gehiago dagoenean, hitz egiteko prest dagoen jendea aurkitzea errazagoa da. Bizpahiru lankide saioa grabatu baino aste batzuk lehenago hasten dira ikertzen herriko jendea, historia, udaletxera deitu, tabernetara joan, jendea ezagutu... Haien lanaren ostean, eskaleta bat egiten da, piezen aukeraketa bat. Hor etortzen dira batzuetan ezusteko txarrak, ze batek ez du nahi atera telebistan edo besteak ezin du. Batzuetan zortea izaten da, bestetan pena ematen dizu ze agian norbait atera gabe geratzen da. Pixkanaka saioa osatzen goaz. Egun oso batean grabatzen ditugu kaleko pieza guztiak. Bi talde ibiltzen gara, Zuhaitz Gurrutxaga alde batetik, ni bestetik. Gero handik 10 egunetara bideoak ikusi, editatu eta bakoitzari ordubeteko grabaketa batetik 5-7 minutu utzi ondoren gidioak egiten dira. Txistekin, okurrentziekin, muntaiekin, arratsalde batean grabatzen da.

Aginagako elizan egin duzue amaierako grabazioa. Herri-tarren grabazioak emititzen



“Aginagan hainbeste denbora egon gabe, dezente aldatu da eta hoberako gainera”. Argazkia: @Agiatik.

MIKEL PAGADI

“Errespetuz joan eta herrietako istorioak, ohiturak, historia... erakusten dugu; istorio pertsonalak, gainditze istorioak, emakumeenak, gazteenak, adinduenak... Normalean adinduek gauza gehiago izaten dute kontatzeko”

joan ahala, ze inpresio izaten dute beren burua lehen aldiz pantaila batean ikusten duten askok?

Magikoa izaten da. Asko txundituta geratzen dira. Agian pertsona lotsagabe gisa ikusten duzu grabazioan, eta gero bera ikusten denean zuri zuri egin da geratzen da. Beti errespetu

handiz joaten gara eta jendea gustura geratzen da.

Aginagarekiko lehendik zenuen ikuspegia aldatu da, grabazioen ostean?

Ezagutzen nuen pixka bat aurrez, Usurbil ere bai. Aginagan hainbeste denbora egon gabe, dezente aldatu da eta hoberako gainera. Lehen ikuspegi ona nuen, baina orain hobea.

Zuek ere pozik egoteko moduan zarete. 100. saioa eskaini berri duzue. Telebista munduan, edonork ez du muga hori gainditzen.

Egia esan harrituta gaude. Formatua probatzen hasiz ekin genion. Aurrena 10 saio grabatu genituen, emititu gabe. Jendeak ez zekien zer zen. Dinamarkako formatua da, egin zuten Katalunian eta gero

guk. Kanpoan funtzionatu du, hemen egin eta agian ez zuela funtzionatuko pentsatzen genuen. Baina orokorrean jendeak gustura hartu du, geroz eta gehiago ikusten joan dira. Audentziarekin oso gustura gaude.

Zein dira arrakastaren gakoak?

Horixe jakin nahiko nuke nik. Lan talde txikia gara, oso ondo eramaten gara. Beti jendearekiko errespetua dugu. Umorea egiten dugu baina ez gara jendearekin sartzen. Hala, errespetuz joanda, hurrengo egunean ere etxeetako ateak ireki egiten dizkizute. Adarra gehiagotzen badiezu ez dizkizute irekitzen. Beti errespetuz joan eta herrietako istorioak, ohiturak, historia.. erakusten dugu; istorio pertsonalak, gainditze istorioak, emakumeenak, gazteenak, adinduenak... Normalean gauza gehiago izaten dute kontatzeko adinduek.

Euskal Herria hobeto

ezagutzeko aukera

Herri asko erakutsi dituzue barrutik, baita herri eta pertsona ezezagun askoren istorioak. Euskal Herria ezezagun bat ari zarete plazaratzen?

Agian pixka bat bai. Herri Txikin agertzen direnak herrietan ezagunak dira baina orohar ezagutzen ez direnak. Badira ezagutaraztea merezi duten istorioak eta jendea, gehiago jakiteko eta Euskal Herria hobeto ezagutzeko.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROLO MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

EHBildu: “EAJren proposamenak aurrez jasota daude”

Abenduaren 20ko osoko bilkuran bozkatuko da 2019rako aurrekontu-proiektua. Zer nolako babesa jasoko duen ikuskizun dago baina gai batzuetan sintonia berean dira EHBildu eta EAJ. Sintonian, eta aldarte onean.

EAJ-k mahaigaineratu dituen lau egitasmoak “neurri batean edo bestean, udal-gobernuaren gobernu-programan eta plangintzetan” jasota daudela dio EHBilduk. “Beraz, pozten gara, norabide berean ari garelako arraun egiten bai udal-gobernua, bai oposizioako alderdi nagusia. Ez gaude, hortaz, urrun: hainbat eta hainbat proposamenetan bat egiten dugu. Beraz, abiapuntu egokia da 2019rako udal-aurrekontuetan adostasuna lortzeko”.

Usurbilgo sarreraren berrantolatzea

EHBildu bat dator aurreko astean orriotan EAJ alderdiak egin zuen proposamenarekin. “Bat gatoz hausnarketa eta diagnostiko horrekin, baita proposatzen duten konponbidearekin”. Legealdi honetan burututako Kale Irekiak parte hartze prozesuan landutako egitasmoarekin bat egiten duela dio Xabier Arregik zuzentzen duen udal gobernuak. “Ondorioz, Mugikortasun Planean jasota geratu da Ostapeko sa-



Asteotan EHBilduk hainbat bilera egin ditu “Usurbilgo herri/auzoetan, udal-langileekin eta oposizioarekin, euren ekarpenak jasotzeko”.

EHBILDU

Aurrekontuak aho batez onartzea herritarrentzat mesedegarri litzateela dio EHBilduk. “EAJk egin dituen proposamenei erreparatuta, aukera egon badago horretarako”

reran biribilgune bat egiteko egitasmoa”. Biribilgune horrek N-634 errepideak Usurbilen eragiten dituen hainbat arazo ere konponbidean jarriko litzukeela dio EHBilduk. “Kontua da N-634 errepidea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa dela eta hari dagokio, horrenbestez, proiektu hori idaztea eta gauzatzea”. EHBilduk ezinbestekotzat jotzen du konpromiso hori lor-

tzeko, herri-estrategia komuna eratzea. “Bide horretan EAJ ere bidelagun badugu, askoz hobe. Diputazioaren aldetik proiektu hori gauzatzeko borondaterik ikusiko bagenu, udal-gobernu honek bere eskutan dagoen guztia egingo du ahalik eta azkarren gauza dadin”.

Kirol azpiegiturak

Oiardo Kiroldegia 30 urte ditu eta hainbat arlotan zaharkituta geratzeaz gainera, txiki ere geratu da. “Zorionez, kirol-eskaintza handia da gure herrian eta herriko kirol-taldeekin dugu etengabeko harreman eta elkarlanaren ondorioz, gaur egungo kirol-instalakuntzen erabilera ondo antolatuta eta koordinatuta dago”, hala dio EHBilduk NOAUA!ra igorri duen prentsa-oharrean.

2019ko aurrekontuetan diru-partida bat jasota dagoela gogorazi du, “inbertsioen atalean, kiroldegiko kanpoko futbol-zelaiko belar artifiziala berritzeko. 50.000 euro bideratuko dira horretarako. Beraz, hobekuntzak progresiboki eta arrazionalki egin ditugu, modu orekatuan, eta asmo horretan jarraituko dugu”.

Udarregi Ikastolak, bestetik, goiko eraikineko patioan dagoen frontoia estaltzeko asmoa du eta “Udala bidelagun izango dute”.

Ikastetxe publikorako zorua

EAJk ikastetxe publikorako lurzorua gordetzea eskatu du. EHBilduren esanetan, “hori ez da aurrekontuetan zehazten den gaia. Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) zehaztu beharko litzateke, hala erabakiko balitz”.

EHBilduk hala ere, ez dio gaiari bizkar eman nahi: “eztabaida interesgarria iruditzen zaigu Usurbilen hezkuntza ereduaz eta publikotasunaz hitz egitea. Hain zuzen, helburu horrekin sustatu genuen aurreko legealdian Usurbilgo hezkuntza-ereduaren gaineko parte-hartze prozesua herritarrekin eta herriko hezkuntza-komunitatearekin batera. Prozesu horretan gai izan ginen adosteko zer-nolako hezkuntza-proiektua garatu nahi dugun Usurbilerako”.

EHBilduk parte-hartze prozesuan adostutako printzipioak ekarri nahi ditu gogora: “herri-hezkuntza proiektu euskalduna, irekia, parte-hartzailea, berritzailea, inklusiboa, euskal curriculum oinarri izango duena, Usurbili lotua eta Usurbilen errota eta usurbildarren beharrei erantzuneko diena”.

“Pikaolan eta Kalezarren 700.000 euro inbertituko dira”

EHBilduren esanetan, 2019ko aurrekontuetan 250.000 euro aurreikusi dira Kalezarreko errepide hobetzeko. “EAJk dio Haur Eskolara doan bidea hobetzeko diru-partidarik ez dela jasotzen baina hori ez da zuzena”.

Kale Irekiak prozesuan landu ziren sei egitasmo gauza-

tuko dira 2019an eta, tartean, Haur Eskolako bidea hobetzea.

- Olarriondoko urbanizazioa-Ugarte alderako segida:

249.087 euro.

- Pikaolako zati baten urbanizazioa: 200.000 euro.

- Pikaola-Saizar espaloia: 162.000 euro.

“Inbertsio potoloak”

“Ez genuke aipatu gabe utzi nahi, horretaz gainera, beste 100.000 euro bideratuko direla Pelaiotenearen egitura eta teilatua birgaitzeko”. EHBilduren esanetan, “Kalezarren inbertsio potoloak egingo dira datozen urtean”.

Pentsiodunen azken osteguna bueltan da

Kalitatezko pentsio duin eta publikoak bermatuak izatea exijitzeko aldarria inoiz baino biziago dago. Asteburuan Hego Euskal Herriko hiriburuetan egin diren manifestazio jendetsuen ostean, herrietara itzuliko dira mobilizatzeko deialdiak.

Usurbilen dakizuenez, urrian hasi zituzten elkarretaratzeak deitzen, Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatuen elkarteek. Asteotan erabaki dutenez, aurrerantzean, protestarako argudioak desagertu ezean, hilero azken ostegunetan elkarretaratzea deitzen segiko dute. Pentsio duinak exijitzeko datorren hitzordua beraz, abenduaren 27an 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Gipuzkoako Helduen Elkarrekin Plataformatik diotenez, mobilizazioei esker aurrerapausoak eman arren, oraindik orain helburuak betetzeko bide luzea dago jorratzeke. Eskakizunok bermatzea galdegiten dute: gaurko eta etorkizuneko pentsioen sistema publikoa gotortzea; bizi ahalmena benetako KPIaren arabera legez bermatzea; bizitza duina ziurtatzeko gutxieneko pentsioak izatea, Euskadin 1.080 euro; iraunkortasun faktorea balio-



Urrian hasi ziren elkarretaratzeak deitzen Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatuen elkarteak.

ELKARRETARATZEA

“Pentsio duinak exijitzeko datorren hitzordua abenduaren 27an izango da, arratsaldeko 19:00etan Mikel Laboa plazan”

gabetzea; emakume eta gizonen pentsioen arteko etena berdintzea...

Dirua bai, borondaterik ez

Eskakizunok betetzeko dirua badagoela baina borondate politikorik ez, gogorarazten dute pentsiodunen elkarteek. Baina datuek bestelakorik diote. “Azkenaldi honetan, Eusko Jaurlaritzari dirua sobratzen

zaio urtero, aurrekontua ez duelako gastatzen”. 2017. urte amaieran, “Lakuak altxortegian 589 milioi euro zeuzkan libre, erabilgarri”. Haietatik 358 milioi euro aski lirake pentsiodunen esanetan, “EAEko pentsiodun guztioi gutxieneko 1.080 euroko pentsioa bermatzeko”.

Fiskalitatea egoki kudeatuta, gutxieneko pentsioak bermatzea aski dela diote. 358 milioi euro horiek Eusko Jaurlaritzaren 15.000 milioi euro inguruko aurrekontutik diru partida bat gai honetara bideratzea proposatzen dute, enpresen eta aberatsen zergak igotzea egun %7,5eko ekarpena baino ez baitute egiten; eta azkenik, 2.500 milioi euroko iruzur fiskala saihestea.

Abenduaren 26an, San Esteban Txiki

Abenduaren 26an ospatuko da ohi bezala, San Estebanen. Goizeko hamaiketan meza, eta horren ostean, hamaiketako zerbitzatuko du auzoko jai batzordeak.

Emakumeentzako ahalduntze ikastaro berriak

Urtarriletik apirilera luzatuko diren emakumei zuzendutako bi ahalduntze ikastaro berri iragarri ditu Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak:

Biodantza:

■ Helen Kortaxarenarekin. Urtarrilaren 11tik apirilaren 12ra, ostiraletan, 16:45-18:15 artean Oiardo Kiroldegian. Euskaraz.

Emozioak eta ahalduntzea:

■ Pepa Bojo psikologoarekin. Urtarrilaren 10etik apirilaren 11ra, ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Bake Epaitegi atzeko lokalean. Erdaraz.

Izen ematea:

■ Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila
■ 943 377 110
■ parekidetasuna@usurbil.eus

Arrakasta itzela, “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlanaren bigarren emanaldiak

Oraindik Euskaraldiari segida emateko 11 aitzakia badirela gogorarazi ziguten Nahiak, Xabatek, Elik eta Patxik, abenduaren 16an Sutegin eskaini zuten antzezlanean. “Euskaraldirako 4 aitzakia” antzezlanaren bigarren emanaldiak jendetza bildu zuen Sutegin, ia

100 lagun.

Herritarrek ahotan

Gure hizkuntza ohiturak, jarrerak agerian utzi zituzten, eguneroko bizimoduari lotuta antzeztu zituzten egoeren bidez. Usurbiletik usurbildarrentzat eginga, Usurbilgo hain-

bat herritar ahotan hartu zituzten. Umore sanotik aritu ziren une oro, eta barrez lehertarazi zituzten Sutegira gerturatutakoak. Amaitu, Euskaraldiaren abestia publiko artean dantzatuz borobildu zuten. Ia laukote honen berri izaten dugun berriaz laster!



Jende ugari batu zen igande arratsaldean Sutegin.

Usurbil F.T., 2018-19 denboraldiko erronkei heltzeko prest



Talde bakoitzarekin argazki bana atera zuten lehenik, eta amaitzeko familia argazki handia.

Alebinak, Futbol Eskolakoak (2008-2010), infantil mailako taldeak, kadeteak, jubenilak, erreionalak... Usurbil F.T.-k prest ditu jokalaria taldeak, denboraldi honetako erronkei heltzeko prest. Larunbatean aurkeztu

zituzten jendaurrean, Mikel Laboa plazan egin zuten argazki sesioan. Talde bakoitzarekin argazki bana atera zuten lehenik, eta amaitzeko familia argazki handia. Irudiotan dituzue Usurbil F.T.-k dituen kideak.

Usurbil FT, 2018-2019 denboraldia

- Alebinak.
- Futbol Eskola.
- Futbol Eskola 2008.
- Futbol Eskola 2009.
- Futbol Eskola 2010.

- Infantil neskak.
- Infantilak A.
- Infantilak B.
- Kadete neskak.
- Kadete mutilak.
- Jubenilak.
- Erreionalak.

Futbol Eskola



Futbol Eskola 2008



Futbol Eskola 2009



Futbol Eskola 2010



Infantilak A, mutilak**Infantilak B, mutilak****Infantilak, neskak****Jubenilak, mutilak****Kadeteak, mutilak****Kadeteak, neskak****Alebinak****Erregional maila**

Jendetza batu zen San Tomas azokan

Euriarengatik izango zen. Edota inoizko postu gehien jarri direlako aurreten. Arrazoiak arrazoi, eguerdirako frontoia lepo zegoen. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa izan zen goiztiarre-na. Udaletxetik abiatu eta kalejiran ibili ziren kaxkoan. Bien bitartean, frontoian dena prest zegoen: babarrunak otarretan ikusgai, sagardo botilak zerbitzatzeko prest eta bi lehiakete-tako epaileak, lanerako gogoz.

Gero eta postu gehiago jartzen dira San Tomas egunean: talo eta gaztain postuak, DBHko ikasleen postreak, Usurbilen Nahi Ditugu zein Korrikaren salmeta puntuak, Aginagako Eskola Txikiko gurasoen mahaia, Aginagako Aranburukoen lore eta landare postua... Jakoba Errekondo eta Argia aldizkariako lagunen mahaia izan da aurtengo nobedadeetako bat eta bertatik ere jende asko igaro zen.

15.000 euro otar salmentan

Nafartarren postuan herritar ugari ikusi genituen, aurretik eskatutako otarren bila ziurrenik. Aurtun, 15.000 euro batu dituzte eta Xiberoako Ikastolen Elkarteko kideak pozarren eskertu zuten usurbildarren elkartasuna.



Gero eta postu gehiago jartzen dira San Tomas egunean.

Sutegin, kontu kontari

Helduentzat nahiz gazte-txoentzako eguna izaten da San Tomasekoa. Ixabel Agirresarobe frontoian zen aritzeko. Baina toki faltan, Sutegiko erakusketa aretoan aritu zen ipuin kontalari lanetan. Adia izan zituen bertaratutako umeak. Ondoren, aurkezle lanetan aritu zen frontoian. Berak eman zituen aurtengo sarituen izen-abizenak. Horretaz gain, NOAUA!ko photocall-ean argazkiak atera zituz-

tenen artean, Errigora nahiz Xiberoako Ikastolen Elkarteko saskiak banatu genituen.

Etsetxoko sagardoa

Sagardo Lehiaketako epaileen esanetan, maila oneko sagardoa izan da aurtengoa. Hiru hauek saritu zituzten:

1. Joxe Manuel Lizarralde, Etsetxo baserria (Zubieta).
2. Antonio Eizagirre, Aldapa baserria (Aginaga).
3. Maria Dolores Sagastibeltza, Ettxeberri baserria (Zubieta).

Ibai-Ertzeko babarruna

Babarrun lehiaketan ez zen sorpresarik izan. Azken urteotan Ibai-Ertz eta Olarri baserriko babarrun aleak izan dira epaileentzat estimatuenak. Aurtun, Aginagako Ibai-Ertz nagusitu da. Bigarren saria Kalezarko Olarrirentzat izan zen.

1. Manuel Aizpurua, Ibai-Ertz (Aginaga).
2. Joxe Kruz Matxain, Olarri baserria (Kalezar).
3. Pili Arroyo, Zugasti baserria (Zubieta).



Pili Arroyo, Joxe Kruz Matxain eta Manuel Aizpuruaren babarrun aleak saritu zituen epaimahaiak.



Sagardo lehiaketan Zubietako Etsetxo baserria nagusitu zen. Joxe Manuel Lizarralde jaso zuen txapela.

Ixabel Agirresarobe Sutegiko erakusketa aretoan aritu zen ipuin kontalari lanetan.

NOAUA!ko photocall-ean argazki bana atera zutenen artean hiru otar banatu genituen: Errigorako bat eta Xiberoako Ikastolen aldeko bi.

Jolasen Inauteri Festa

Jolastoki erraldoian bilakatu nahi dugu Usurbil, 2019ko martxoaren 2an. Usurbilgo kaleak jolaserako berreskuratu nahi ditugu. Horretarako noski, zuen laguntza ezinbestekoa izango da. Izan litezke mahai-jokoak, jolas koopera-

tiboak, herri kirolak edo kirol jolasak, atzoko jolasak nahiz puri-purian direnak. Tamaina, formatu guztietakoak...

Garai batean bezala, kalera atera eta jolastu! Jolasak, hortxe datorren Inauteri Festarako mozorrotzeko proposatzen dizue-

gun gaia. Tabernetan jarri ditugun zerrendetan nahiz emailaz jasotako ekarpenen artean hautatu dugu. Milesker beste behin proposamenak idatzi dituzuen guztioi! Eta orain, mozorro festa prestatzera!

Hurrengo hilabeteotan joan-

go gara zehazten Inauteri Festaren egitaraua eta gainerako zehaztasunak. Martxoaren 2ko jai egun handirako proposamenik baldin baduzue helarazi elkarte@noaua.eus helbidera edo telefonoz, 943 360 321 zenbakira.

Orbeldi Dantza Taldea, plazatik zinemako pantaila handira

Usurbilgo dantza taldekoak plazan bakarrik ez, aurrerantzean pantaila handian ikusi ahalko ditugu. Abenduaren 21ean estreinatuko duten Telmo Esnalen “Dantza” filmean hain zuzen. Iazko maiatzean Leitzaan egin zen proiektu honetarako grabazioan parte hartu zuten Orbeldi D.T.-ko kideek.

NOAUA! Fima ikusi duzue jada. Ze inpresio izan duzue?

Orbeldi Dantza Taldea: Berezia da. Ez dago hitzik. Dantza eta musikaren bidez, sorkuntzatik bizia nola garatzen den kontatzen du. Hor Juan Antonio Urbeltzen interpretazioa dago, dantzak nondik sortu ziren. Interpretazio bat denez, berezia da.

Beste ikus-entzunezko lan askotan, bigarren maila batean gelditzen diren dantza eta musika erdigunean jartzen ditu “Dantza”-k.

Izenburuak aipatu moduan, horretan zentratzen da. Betidanik egin diren dantza horiek, Urbeltzek emandako logika batean bildu, eta hari baten bidez egiten da kontakizuna. Ikustera doanak ez dezala pentsatu, film baten hasiera, korapiloa eta ondorioa aurkituko dituenik. Pentsamendu irekiz joan behar zarete ikustera.

Ehunka lagun ageri dira dantzaz.

Guk parte hartu genuen eszena izan zen dantzari gehien biltzen zituena. Herriko plaza, eta festa bat irudikatzen zuen. Berrehunetik gora izango ginen. Oso bitxia izan zen, betiko dantzak hala ikustea, jantzi desberdin eta bereziekin.

Iaz Leitzaan eginiko grabazioan



Abenduaren 21ean iritsiko da Dantza filma zinema aretoetara. Orbeldikoek Leitzaan plazan dantzatu zuten. “Aurretik, bi egunetan bi entsegu saio egin genituen Lasarteko Landaberri-Garaikoetxea ikastolan, bertako Erketz taldekoekin”.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Betidanik egin diren dantza horiek, Jose Antonio Urbeltzek emandako logika batean bildu, eta hari baten bidez egiten da kontakizuna”

parte hartu zenuten. Nolan jaso zenuten egitasmo honetan parte hartzeko gonbita?

Lasarteko dantza taldeari heldu zitzaion gonbita. Ezagunak ditugu. Jendea behar zuten, asko pentsatu gabe joan ginen grabaziora. Aurretik, bi egunetan bi entsegu saio egin genituen Lasarteko Landaberri-Garaikoetxea ikastolan, bertako Erketz taldekoekin. Filmeko dantzari protagonista batzuk etorri zitzaizkigun irakastera.

Pare bat entsegu eta graketa platora.

Grabazioa asteburuan zen eta aurretik, aste horretan ile-apainketa lanak egin eta arropa probatzen aritu ginen. Dena eginda zuten; probarazten zizuten jantzia, ilea nola eraman behar zen. Argazkiak atera eta dena prest uzteko grabazio egunerako.

Film bat nola ekoizten den barrutik ezagutu duzue. Minutu gutxi batzuetan film batean agertzeak zenbat lan eskatzen duen, horren kontzientzia hartuko zenuten.

Hiru bat minututan aterako gara filmean. Baina horretarako bi egun oso eman genituen Leitzaan. Film bat ikustean denok dakigu aurrez prestatu eta landua dagoela, eta hor atzean lan handia dagoela. Kasu honetan bezala. Detaile txi-

kiena ere zaindu dute. Gu ere dantzari bezala oso zainduak izan ginen.

Film honetan estetikak garrantzia handia du, mugimenduak eta dantzak aurkezteko moduak?

Kolore oso biziak daude film guztian zehar. Arropak eta orrazkerak ere zoragarriak ziren, oso bereziak. Babarrun artoarekin eginiko lepokoak zituzten. Polita, berezia.

Ekoizpen prozesua barrutik bizi ostean, filma bera orain beste begi batzuekin ikusten duzue?

Bai. Agian bestela arreta jarriko ez zenukeen gauzetan jartzen duzu. Filma ikusterakoan oroitzen ditugu grabaketa unean bizitakoak eta guk ikusi genuen zati hori nola txertatu duten filmean.

“Filmak orain artekoa iraultzen du, buelta bat ematen dio guztiz”

NOAUA! Zuen zatia nola txertatu duten gustatu zaizue?

Orbeldi Dantza Taldea: Bai. Donostiako Zinemaldia baino astebete lehenago, Principe zinema aretoan ikusi ahal izan genuen filmean parte hartu genuenok. Dantzari asko bildu ginen. Egia esan gogotsu ginen ikusteko. Guri aspaldi grabatu genuela iruditzen zaigu, pentsa beraientzako, lan prozesu oso luzea izan da.

Dantzen aurkezteko moduari dagokionean, film honek Dantza Eguneko gaueko ikuskizunerako ideiak eman dizkizute?

Atera genituen ideia batzuk. Trikimailu ezberdinak ikasi genituen; ze gauza gutxiarekin ze gauza politak egin daitezkeen. Materiala nola berrerabili duten. Gure eszenan erabilitako jantzien zatiak filmeko beste zati batzuetan identifikatu genituen, beste modu batera jarrita.

Euskal Herriko dantza mugimenduaren ispilu ere bada neurri batean film hau?

Bai ze oso toki desberdinetako dantza taldeak bildu ginen. Oso leku ezberdinetan grabatu zen gainera; Leitzan, Bardeetan, Arantzazun, Zarautzen...



Telmo Esnalek zuzendu du “Dantza” filma.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Dantza munduaren inguruan beste ikuspegi bat ematen du filmak, ez ikuspegi folklorista bat”

Filmak aurkezten digun estetika euskal dantzekin lotzea pentsaezina da. Azken eszena harrigarria da.

Dantza munduari zer ekarpen egin diezaioke edo ze arrasto utziko du filmak?

Filma muntatua dagoen bezala eta duen irakurketarekin

arrastoa utziko du. Lehengo dantzak dantzatzeko beste era bat badagoela. Estetika aldatuta, beste dantza estiloekin esperimentatu gabe. Filmak orain artekoa iraultzen du, buelta bat ematen dio guztiz. Ezin jakin ze ibilbide izango duen filmak baina gure kultura esportatzeko modu polit eta erraza izango da. Film horretan dago gure musika, gure dantza; zure interpretazioa egin dezakezu, eta filmean kontatzen diren sententzioak bizi dituzu.

Talde bezala, Orbeldi Dantza Taldearentzat pozgarria izango zen, “Dantza”-n parte har-

tzea. Zer ekarpen egiten dio filmak Orbeldiri?

Filmaren kredituetan dago Orbeldi, bada zerbait. Gure izenak eta Orbeldirena hor dago kredituetan. Jada Orbeldik film honetan parte hartu zuela esan liteke. Bestalde, Leitzako grabaziora dantzari taldetxo bat joan ginen. Ordu piloa pasa genuen batera, eta gure harremanetarako oso ondo egon zen. Oso esperientzia polita bizitzeko aukera izan genuen.

Zergatik joan behar dugu “Dantza” ikustera?

Dantza munduaren inguruan beste ikuspegi bat ematen duelako, ez ikuspegi folklorista. Gero horren inguruan baloratu dezakezu gustuko duzun edo ez. Nahi duenak ikusi ikustera joan, merezi du. Pentsamendu ireki batekin joan behar da.

Orbelditik, 2019ra begira ze berri duzue?

Dantza Eguna, apirilaren 13an ospatuko dugu. Lanean ari gara bai dantzarekin, bai musikarekin. Gainerakoan, ikastaro guztiak martxan daude. Orain, urteko balantzea egiten gabilta.

“Dantza” urtarrilaren 27an Sutegin, NOAUA!ren eskutik

Ostiralean (abenduak 21) estreinatuko da “Dantza” zinema aretoetan, baina pixkatxo bat itxaroteko pazientzia baduzue, herritik mugitu gabe, Sutegin ikusteko aukera izango duzue hilabete barru, urtarrilaren 27an. Urtarrileko

azken igandean 19:00etan, kultur etxeko auditorioan, NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik.

Urte hasierako aldirian emango dizuegu sarriren salmentaren gaineko informazio zehatza.

Txintxua Films-ek ekoitzia

Aginaga eta Usurbil inguruetan grabaturiko “Oreina” bezala, lan hau ere Txintxua Films-ek ekoitzi du. Aipatu moduan, euskal dantza tradizionalak ikuspuntu berri-tzailetik, doinu, estetika eta

koreografia berriei islatzen ditu Telmo Esnal zarautzarrak zuzendutako film honek. Eta Usurbilekin lotura estua du baita. Donostiako Zinemaldian estreinatu ondoren, orain zinema aretoetara jauzi egingo du “Dantza”-k.

GuraSOS-ek plan alternatiboa aurkeztuko du abenduaren 29an

Eguna finkatu dute jada. Abenduaren 29an aurkeztuko du GuraSOSek, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Alternatiboa. Plana bera azken urtebete honetan landu eta josi dute gipuzkoarrek, Foru Aldundiak ukatu zieten hitza hartuta, martxan izan duten Hitzartu prozesuaren baitan. “Abenduaren 29an ezagutuko dugu hiritarren mahai eta irizpideei egokituko zaion Hondakin Plan. Adi egon, badator...”, iragarri du GuraSOSek sare sozialen bidez.

775 gipuzkoarrek baino gehiagok hartu dute hitza azken hilabeteotan Hitzartu prozesuaren testuinguruan bideratu dituzten dinamika ezberdinen bidez. Helburua, herritar, eragile eta adituen aldetik bildutako ekarpenekin, erraustegia alboratuko duen Gipuzkoarako, etorkizuneko hiri hondakin kudeaketa plana erredaktatzea izan da. Eta plan honekin, Gipuzkoan gai honekin dugun gatazka, elkarlanean adostasunez konpontzea.

Prozesu honen baitan, mahai teknikoa (adituena) eta soziala (herritar eta eragileena) eratu zituzten eta lanketan jardun dute azken hilabeteotan. Plana bera erredaktatzen aritu da ingeniari talde bat. “Hitzartuko



Abenduaren 29an ezagutaraziko dute “hiritarren mahai eta irizpideei egokituko zaion Hondakin Plan”.

GURASOS

“Babes-kutxak erosiz edo kontu zenbakietan diru ekarpenak eginez lagundu daiteke Hitzartu parte-hartze prozesua”

hondakin plan idazten ari den ingenieritzak abenduaren 29rako bukatua izango du”, iragarri du GuraSOS-ek.

Ekarpenak

Adi, oraindik halere, Hitzartu prozesuaren baitan lanean ari diren Mahai Sozialari zein Mahai Teknikoari ekarpenak, galderak egiteko aukera izango duzue abenduaren 27ra arte. Edozein zalantza argitu edo iruzkinen bat egin nahi izanez

gero, sartu gurasos.org atarian, klikatu Hitzartu atalean eta hor, “galderak eta erantzunak” izeneko tartean. Bertan idatzi ditzakezue mezuak.

Gastuen erdia, ordainduta

Hitzartu herri ekimenetik jaio zen, auzolanean garatzen ari dira eta herritarron laguntza beharko da gastuei aurre egiteko. Guztira 80.000 euro behar ditu GuraSOSek. Urtean zehar eginiko kanpainarekin eta azken aldian, salgai dituzten babes-kutxekin gastuen erdia ordaindu dute; aste hasierarako 45.593,55 euro bilduak zituzten. Babes-kutxak erosiz edo kontu zenbakietan diru ekarpenak eginez lagundu daiteke Hitzartu. Informazio gehiago: gurasos.org

Ukraina-Donbass gatazkari buruzko hitzaldia

EH Donbass eta Vostoke-rantz-eko kideen eskutik Ukraina-Donbass gatazkaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango da abenduaren 30ean. Tadamon, Usurbilgo elkargune internazionalistak 18:00etan Sutegin antolatu duen hitzaldian. “Gaur egun, komunikabide hegemonikoek ezkututzen saiatu arren, Europa ekialdian oraindik bizirik dagoen gatazkaren erroak zeintzuk diren eta egun bertan zer nolako egoera bizi den jakingo dugu”. Euskaraz eta gaztelez eskainiko den hitzaldirako sarrera doan.

Aros Dj-arekin 2019an murgiltzera

Urte berriari ongi etorria emateko lehen parranda gaua, eta 2019ko lehen orduak Aros DJ ariko da girotzen. Usurbilgo Udalak antolaturiko saioa, urtarilaren 1ean goizaldeko 1:00ean hasiko da frontoian.

Usurbilgo kultur uzta ikusgai

Urtarilaren 7ra arte ikusgai izango dituzue Sutegiko aretoan egokituriko mahaitxoan. Askorentzat opariak egiteko egunak izango diren honetan, proposamen erakargarri bat baino gehiago aurkituko duzue bertan.

Erraustegiari buruzko kezka, Realaren akziodunen bilkuran

Real Sociedad futbol taldeko akziodunak urteko bilera nagusian elkartu ziren abenduaren 11n Donostiako Kursaal Jauregian. Hitzordu berean, galdera eta eskaerentzako tartea izan zuten akziodunek. Akziodunen artean, erraustegiaren gaia ahotan hartu

zuenik izan zen. Gogoan izan, Realeko jokalariek Zubietan eraikitzen ari diren plantatik ehunka metro gutxira entzaten dute.

■ Akziodunaren galderak: erraustegia martxan jartzera doazela eta, Zubietan entzaten duten kirolarien osasuna-

ren gaineko jarraipenik egin asmo duzu? Ikertu duzu antzeko kasurik ba ote den, alegia erraustegi batetik kilometro batera formazio gunerik ba ote den? Badakigu kirolariengan zer nolako eragina izango duen? Erraustegia martxan jartzera doazela eta, kezkatuak

zaudete?

■ Jokin Aperribayren erantzuna: “Osasuna bermatua dagoela espero, desio eta segurantzia dugu. Erraustegiak osasun baldintza guztiak errespetatzea da desioa, ez bakarrik jokalaria, baita gipuzkoarra ere”.

Abenduaren 24an eta 31n soilik goizez ibiliko da bus taxi zerbitzua

Aurreko urteetan bezala, abenduaren 24an eta 31n goizez soilik funtzionatuko du bus taxi zerbitzua; 07:30etik 08:30era, 10:30etik 11:30era eta 13:00etik 14:00etarako zerbitzuak burutuko dira. Beraz, arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 tartean ez da zerbitzurik izango.

Bus Taxi zerbitzua:

“Kontuan izan abenduaren 25ean eta urtarrilak 1ean ez dela zerbitzurik izango; izan ere, jai egunetan ez da zerbitzurik ematen”, udal iturriek aditzera eman digutenez.

Auzoetan eta landa inguruetan sakabanaturik bizi diren biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko sortu zen zerbitzu hau. Gainera, adineko pertsonak eta mugikortasun murriztua dutenen beharrei aurre egiteko ibilgailua etxeraino hurbiltzen da, indarrean dauden zerbitzuen ordutegi barruan. Horretarako, zerbitzua telefonoz aurrez eskatu behar da: 630 64 35 96.

Lurraldebus:

Abenduak 24 / Abenduak 31

- UK09 linea: Zarautz-Donostia arteko azken zerbitzua 19:50ean, 20:15ean Donostia-Zumaia artean.
- T2 Ospitaleak-Usurbil: 19:50ean



Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean ez da bus taxi zerbitzurik izango.

ABENDUAK 24 ETA 31

“Bus taxia soilik goizez ibiliko da. Arratsaldeetan ez da zerbitzurik izango”

azken zerbitzua ospitaleak-Usurbil artean, 20:17an Usurbil-Ospitaleak artean.

- T6 Hernani-Usurbil: azken zerbitzua Hernanitik Usurbila 19:45ean, Usurbildik Hernanira 20:15ean.

Abenduak 25 / Urtarrilak 1

■ UK49G: autobus zerbitzuak gauez, Zumaia-Donostia artean. Usurbildik Donostiarantz orduotan: 1:35, 2:35, 4:35, 5:35. Usurbildik Oriarantz: 2:25, 3:25, 5:25, 6:25.

■ UK09 linea: goizez zerbitzu bakarra, 10:30etan Zumaia-Donostia artean, 12:00etan Donostia-Zumaia artean.

■ T2 eta T6 lineetan ez dute zer-

bitzurik iragarri.

Informazio gehiago:

lurraldebus.eus / 900 300 340

Euskotren:

Abenduak 24 / Abenduak 31

Azken zerbitzuak:

- Usurbildik Donostia: 20:24, 20:54.
- Usurbildik Oriara: 19:04, 19:34, 20:04.

Abenduak 25 / Urtarrilak 1

Goizez zerbitzu bakarra: Usurbildik Oriara 11:04an, Usurbildik Donostia 13:24an.

Arratsalde: Usurbildik Oriara 17:04-22:04 artean orduoro. Usurbildik Donostia 18:24-22:24 artean orduoro. Azken zerbitzua, 22:54an.

Informazio gehiago:

euskotren.eus / 944 333 333

Kantu Taldea, ikasturte berriaren atarian

Aste hasierako entsegu saioaren ostean, ikastolako klaseak amaitzearekin batera oporretara doaz baita Kantu Taldekoak. Asteotako etenaldiaren ostean, urtarrilaren 14an itzuliko dira ohiko jardunera, ikasturte berriari ekinez. Ohiko egun, ordu eta tokian batzen segiko dute; astelehenero, 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan. Urtarrileko azken larunbatean ospatuko dute bestalde, kantu-jira.

KzGunera datozen ikastaroak

Opor giroa KzGunera ere heltzear da. Abenduaren 21ean zabalduko dute azken aldiz, 16:00-20:00 artean, urte honi dagokionean. Urtarrilaren 2ra arte itxita egongo da gero. Urtarrilaren 2tik aurrera, 9:00-13:00 artean irekiko dute. Hemen 2019rako iragarri dituzten lehen ikastaroen berri:

■ Urtarrilak 2-15

Ordutegia: 9:00-11:00

“Ofimatika tresnak-LibreOffice”.

■ Urtarrilak 16-25

Ordutegia: 9:00-11:00.

“Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako”.

■ Urtarrilak 21-22

Ordutegia: 11:00-13:00.

“Enplegu bat lortu”.

■ Urtarrilak 28-29

Ordutegia: 9:00-11:00.

“Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik”.

Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 37.

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Odol ematea, urtarrilaren 7an

“Denok gara hartzaile potentzialak; izan gaitezen emailerealak!”. Mezu argi honekin gonbidatzen gaitu Usurbilgo Odol Emailen Elkartek, bi hilean behin deitu ohi duten hitzorduan parte hartzera. Bereziki, 22-34 urtekoen artean eman da, odol emateen beherakada. Hurrengo odol ematea, urtarrilaren 7an,

18:00-20:30 artean ambulatarioan. Odola emateko bete beharreko baldintzak:

■ 18-65 urte artean izatea.

■ 50 kilotik gora pisatzea.

■ 12 urte baino lehenago hepatitisa izan, kolesterol maila altua izan, baraurik egon ez edota ohiko botikaren bat hartzen baduzu ere, odola eman dezakezu.

■ Emakumezkoek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola, gizonezkoek gehienez lautan. Odol emate baten eta hurrengoaren artean, gutxienez bi hilabeteko tarte igarotzen utzi beharra dago.

Informazio gehiago:

donantes2punto.eus

943 31 70 91

Kultura matrilinealari buruzko jardunaldiak

Egungo krisia “sistemikoa” da, zibilizazio krisia dela esan genezake. Egoera honek herri gisa erronka handi baten aitzinean kokatzen gaitu. Kultura, gizarte eta eredu politiko berriei ekin behar diegu: zulentik irtengo gara ala sakonago zulatzen jarraituko dugu? Eredu hori eraikitzen hasteko oinarri komunitarioa dugu ardatza. Zorionez, euskal eredu matrilinealaren iparrratzak erabil dezakegu. Iparrratzak banakoaren eta taldearen burujabetzaren norabidea erakusten digu, hirukote batez osatuta dagoelarik: auzolana, batzarra eta herri-jabetza. Hirukote hori egokitu behar dugu tokatu zaigun aro berrira”.

Mari Carmen Basterretxea antropologoaren “Euskal Herria, Kultura Matrilineala” izeneko liburuaren epilogotik hartu dugu ondoko testu zatia. Lan honetan, duela 4.000 kultura matrilinealak zuen indarraz dihardu. Garai hartako gizartean zegoen emakume



Mari Carmen Basterretxea “Euskal Herria, Kultura Matrilineala” liburuaz jardungo du larunbatean Potxoenean. Argazkia: Irutxuloko Hitzza.

eta gizonen arteko parekide-tasunaz, eta ingurunearekiko bizi zuten armoniaz.

Kultura matrilinealari buruz Auzolan Elkateak astebururako Potxoenean antolatu dituen jardunaldietan parte hartuko du Basterretxea:

Abenduak 21, ostirala

18:00 Autoezagutza emakume eta gizonengan (Unai Muñoa).
18:30 Ilargia eta emakumea, elkar ezagutzeko emakumezko zikloak (Alba LaLuna).
19:00 Bideoak: Umetokiarekin berriz ere konektatu (Monica

Felipe Larralde) eta Gozo-gozo erdituko dugu (Casilda Rodríguez), 15 minutuko proiektzioa (bideo biak gazteleraz).
19:15 Erditzea eta jaiotza. Aroa Etxeburua Ugartemendia.

Abenduak 22, larunbata

11:30 Euskal Herria Kultura Matrilineala (Mari Carmen Basterretxea).
12:00 Aro aldaketa Euskal Herrian (Gabriel Valin).
Tokia: Potxoenea.
Sarrera: doan.
Antolatzailea: Auzolan.

Buruntzazpi Iparfrio taldeak urte biribila osatu du



Aurreko astean, Euskal Txirrindularitzaren Galan, Buruntzazpi Iparfrio taldeko lau txirrindulari saritu zituzten: Beñat Carbayeda Urruzola, Asier Pozo Notario, Haimar Etxeberria Ansalas eta Jaime Romero Villanueva.

9. Hurbilago

San Silvestre

Urtea herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzearen alde korrika egiten agurtu nahi izanez gero, adi, abenduaren 31n ospatuko baita ohi bezala, 9. Hurbilago San Silvestre Herri Lasterketa. Izena aurrez eman beharko da doan, Hurbilago Elkarteko edozein saltokietan edo hurbilago.com atariaren bidez.

Atrakzio parke erraldoia

Gogoan izan bestalde, atrakzio parke erraldoia antolatu duela Hurbilagok abenduaren 29 eta 30erako, herri erdigunean. Egun bakoitzeko sarrera 15 eurotan ordaindu beharko da. Baina Hurbilagoko kiden diren saltokietan 20 eurotik gorako erosketa bakoitzeko puntu bana eskuratu ahalko da. 10 puntu bilduz gero, puntuak Hurbilago kide diren dendetan trukatuta, egun baterako sarrera doan jaso ahalko da.

Zubietako

Eskolako umeak, San Tomas

egunean kantari

Ostiral honetan, Zubietako Eskolako umeak kantari abiatuko dira 12:00etan Errebote plazara “eta gero txistorra banatuko dugu Guraso Elkartearen izenean”.

Abenduaren 24ko eskea

■ Abenduaren 20an osteguna entsegua Kaxkapen. 19:00etan.

■ Abenduaren 24an astelehena, arratsaldeko 16:00etan aterako dira kantari.

Irteera lekua: Artzabaleta baserria.

Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

Abenduaren 29an, Mirotzen omeneko Eskubaloia Txapelketa

Euskal Herriko txoko ezberdinetako gaztetxoek eskubaloia taldeak bilduko ditu hamaikagarrenez, Mirotzen omenek abenduaren 29an ospatuko den Infantilen Arteko 11. Eskubaloia Txapelketa. Ohi bezala, Usurbil Kirol Elkarteak antolatuta, egun osoz, Oiardo Kiroldegian.

Infantilen Arteko Eskubaloia Txapelketa

- Abenduak 29, larunbata.
- Tokia: Oiardo Kiroldegia.
- Ordutegia: 9:00-20:00.

Infantil Nesken Txapelketa

A multzoa: Usurbil K.E., Anaitasuna eta Tolosa CF.
B multzoa: Basauri ET, Bera Bera, Aiala ZKE.
09:00 Usurbil K.E.-Tolosa CF
10:00 Bera Bera-Aiala ZKE
11:00 Anaitasuna-Tolosa CF
12:00 Basauri ET-Bera Bera
13:00 Usurbil K.E.-Anaitasuna
14:00 Aiala ZKE-Basauri ET
16:00 5-6 postuak



Goizeko 9:00etan hasiko dira partidak. Sari banaketa 20:00etan egingo da.

17:20 3-4 postuak
18:40 Finala

Infantil Mutilen Txapelketa

A multzoa: Usurbil K.E., Anaitasuna, Tolosa CF.
B multzoa: Basauri ET, Bera Bera, Amenabar ZKE.
09:30 Usurbil K.E.-Tolosa CF
10:30 Bera Bera-Amenabar ZKE
11:30 Anaitasuna-Tolosa CF
12:30 Basauri ET-Bera Bera
13:30 Usurbil K.E.-Anaitasuna

14:30 Amenabar ZKE-Basauri ET
16:40 5-6 postuak
18:00 3-4 postuak
19:20 Finala
20:00 Sari banaketa.

Oharrak:

- Partiden iraupena, 12 minutuko bi zati, minutu bateko atsedena.
- Bazkaria 13:00-15:30.
- Antolatzaileak: Usurbil K.E., Usurbilgo Udala.

Futbol partidak

Hararen

Abenduak 22, larunbata
■ 10:00 Udaregi Usurbil F.T. A Aralar Intxurre K.K.E. B
■ 12:00 Usurbil F.T. Danena K.E.

Abenduaren 29an, Gabonetako 5.

Futbol Txapelketa

Talde ezberdinetako kirolari gaztetxoak bildu eta giro ederrean ospatzen duten Gabonetako 5. Futbol Txapelketa antolatu du Usurbil F.T.-k, Kutxabanken laguntzaz, abenduaren 29rako Hararen. Goizeko 10:00etan hasiko den hitzorduan parte hartuko dute:

- Billabona K.E.
- Urnieta K.E.
- C.D. Baztan K.E.
- Usurbil F.T.
- Orioko F.T.
- Pasaia K.E.
- Antiguoko K.E.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen, martxan

Hamabi mahats aleak jan eta 2019ari ongi etorria emango diogun une berean egin ahaliko dugu urte berriko lehen plana. Lehen kirol hitzorduan izen emateko epea zabalduko digute; urtarrilaren 27an (9:00etan Mikel Laboa plaza-tik) ospatuko den Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako inskripzio epea, kirolprobak.

com atarian. 1940ko urtarrilak 31-2003ko urtarrilak 26 artean jaio zirenei dago zuzendua hitzordua, nahiz 13-16 urte arteko txirrindulariek ere parte hartu ahaliko dute. Beti ere, "baldu eta une oro heldu baten ardurapean badaude. Kasu hauetan, izen ematea irisasibtt@gmail.com helbidearen bidez beteko da".

Urtarrilaren 25era arte eman ahaliko da izena. Adi, antolakuntzak txaleko bat oparituko die lehenbizi apuntatzen diren 500 partaideei. Prezioa: federatu gabeek 18 euro; federatuek 20 euro.

Informazio gehiago:

andatzamendizale.info
irisasibtt@gmail.com



Urte hasieran zabalduko da izena emateko epea.

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97

JUANTXO

BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

ETXEBIZITZA

Salgai

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia es-trenatzera. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

ETxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

ETxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

ETxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaueus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbia. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen

da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziatzen. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia.

615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriodon 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rrorburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz errete-
gian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Ur-tariletik aurrera. 615 547 567

Neska arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904



Zorionak Anne eta Jon! Abenduaren 26an urteak beteko dituzue. Ondo pasa eta muxu handi bat, Helene, aitaren eta amaren partetik.



Zorionak Ander!! Abenduaren 29an, 9 urte beteko dituzu. Zorionak eta ondo pasa. Muxu handi bat familiaren partez.

Heriotzak

Rosarito Agote Iñarra

75 urterekin hil zen abenduaren 12an Usurbilen



Pelix Sarasola Alzaga

72 urterekin hil zen abenduaren 15ean Usurbilen



OHARRA: 2018ko urtarrilaren 11n aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: urtarrilaren 7an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaueus

Mutil arduratsu bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertso-

na helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarekin. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauean, asteburutan, externa bezala edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziarekin. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lane-tarako eskaintzen da. 66118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garaieak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

BESTELAKOAK

4 gurpildun karro elektrikoa salgai. Scooter markakoa. Egokia elbarrietuentzat. Tel. 664 609 596

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gatzetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Izaro

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Bilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Mandarina japoniarrak saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreata ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 22 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 24 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 26 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Abenduak 20 - Abenduak 30

Osteguna 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 28 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 29 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

21 ostirala

- **San Tomas jaia Santueneko ludotekan.** 18:30. Antolatzailea: Santuenea Auzo Elkarte.
- **Ikasleen gabonetako kantu-jirak.**
- **Kultura matrilineala jardunaldia.** 18:00etan Potxoenean.

22 larunbata

- **Kultura matrilineala jardunaldia.** 10:00etan Potxoenean.
- **Got Talent Gaztelekuan.** 16:30ean gaztelekuan.

23 igandea

- **Olentzerori ongi etorria Aginagan.** 18:00etan. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarte.

Euskal presoek eskubideen aldeko hitzordu bereziak

Azken ostiraleko hitzordurik ez da izango, baina datozen astelehena, euskal presoek aplikatzen zaien salbuespenezko espetxe politika salatu eta etxeratzea kantuan nahiz topa eginez eskatzeko aukera izango da, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitutako hitzorduen bidez.

Abenduak 24, astelehena

- 16:30 Mari Domingirekin kantuz herri itzulia preso eta iheslarien eskubideen alde, frontoitik abiatuta. Handik Olentzerori ongi etorria egitera 18:00ak aldera.

Abenduak 31, astelehena

- 20:00 Topa Dema plazan.



Euskal presoek eskubideen aldeko hitzordurik ez da faltako asteotan.

Urtarrilak 12, larunbata

- Euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioak Bilbon eta Baionan. Autobus zerbitzua Usurbildik. Deitzailea: Sare.

Bilera irekia, Anerreka Elkarteak deituta

Ingurumen arloko gai ezberdinak hizpide hartuko dituen bilera irekia izango da.

- Abenduak 20, osteguna. 19:00-20:00.
- Tokia: Potxoenea, sotoko gela.
- Gai zerrenda: Ucin S.A., Luzuriaga S. Coop., Harane erreka.

Parrokiak antolaturiko gabon kantu jirarik ez

Gabonetako gehigarri berezian aipatu badugu ere, aurtengoan ez da Parrokiak antolaturiko gabon kantu saiorik izango. Jaiotzarekin batera herrian barrena egin ohi duten itzulia beraz ez da ospatuko abenduaren 24an.

Datozenak

Abenduaren 24ko kantu saioak

Aginaga:

- 09:00-15:30 Kantu jira etxez etxe Parrokia ondotik abiatuta. Aginaga erdigunera itzulera, 15:00ak aldera.

Zubieta:

- 16:00 Artzabaleta baserritik kantu eskea. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txiki-ko Guraso Elkarte.

Santuenea:

- 18:00 Olentzero Santuenea elkartetik auzoan barrena. Amaiera Sagardotegian.

Usurbil:

- 16:30 Mari Domingirekin kantuz herri itzulia preso eta iheslarien eskubideen alde, frontoitik abiatuta. Handik Olentzerori ongi etorria egitera 18:00ak aldera.
- 17:00 Olentzerori idatzitako gutunak jaso Dema Plazan.
- 18:00 Olentzeroren etorrera Kalezarretik abiatuta.
- 19:00 Amaierako jaia, Dema Plazan. Olentzerori harrera egiteko: jaiotza, musika, dantza, kantua, aldarrikape-na, sua, txalaparta, adarra, jentilak... Antolatzaileak: Usurbilgo herri eragileak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



Zorriak eta
Urte Berri on!



hurrengo **noqua** urtarrilaren 11n



Lizarralde
ORTOPEDIA

Bizi kalitatea hobetuz

Ondo pasa Gabonetan!

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00

ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkia,
ohe artikulatuak



Teknikari ortopeda kontsulta



Arreta pertsonal eta espezializatua



Online eta telefono bidezko aholkularitza



Salmenta ondorengo zerbitzua



Etxera banaketa



Eskailera igogailuen instalazioa



Komun eta etxebizitzaren egokitzapena



Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza



Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza



Zapata eta ortesi gama zabala

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus


USURBILGO denda txikien

atrakzio parke

ERRALDOIA!

2018

abenduak 29-30



USURBILEN
zure erosketak egiteak **SARIA** du:
egun osoko sarrera DOAN!

20€ ko
erosketaren truke
puntu1
jasoko duzu

10 puntu
lortuz gero
egun osoko
sarrera
zuretzat!

PUNTUAK
ESKURATZEKO:
azaroaren 5etik
abenduaren 28ra
Usurbilgo komertzioetan



Usurbilgo Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak